naren 30era arte izendatuko du zuzendari egokien iritzitako irakaslea. Kargugabetua zuzendaritza-taldeko beste kideren bat bada, ikastetxeko zuzendariak proposaturiko pertsona izendatuko du kargu horretarako Hezkuntzako lurralde-ordezkariak, zuzendariaren agintaldia amaitu arte.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2007ko martxoaren 29a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,
JOSÉ ANTONIO CAMPOS GRANADOS.

de Educación nombrará Director o Directora, hasta el 30 de junio de 2008, al profesor o profesora que considere más adecuado. Si la persona cesada fuera otro miembro del Equipo Directivo, el Delegado o Delegada Territorial de Educación nombrará para dicho cargo a la persona que proponga el Director o Directora del centro, hasta la fecha de finalización del mandato del Director o Directora.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 29 de marzo de 2007.

El Consejero de Educación, Universidades e Investigación,
JOSÉ ANTONIO CAMPOS GRANADOS.

## KULTURA SAILA

## 2286

AGINDUA, 2007ko martxoaren 9koa, Kultura sailburuarena, Villabezanako, Ribera Alta, (Araba) Done Joane Bataiatzailearen tenpluko Arkeologi Gunea, Kultura Ondasun gisa, Monumentu izendapenaz, Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean sartzeko dena.

Euskal Autonomia Erkidegoak, Konstituzioaren 148.1.16 eta Estatutuaren 10.19 artikuluen babesean, eskumen osoa bereganatu zuen Kultura Ondarearen gaiari dagokionez. Aipatutako eskumen horretan oinarrituz, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legea onartu zen, kultura-interesa duten Euskal Autonomia Erkidegoko ondasunak deklaratzeko prozedurak arautzen dituena.

Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordearen 2007ko urtarrilaren 9ko Ebazpenaren bidez Villabezanako, Ribera Alta, (Araba) Done Joane Bataiatzailearen tenpluko Arkeologi Guneak aurkezten zuen balio kulturala eta indarrean dagoen legedia ikusirik, Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Nagusian Sartzeko espedienteari hasiera eman zitzaion. Ebazpen hau 2007ko otsailaren 6ko EHAAn (26. zk.) argitaratu zen.

Aipatutako espedientearen administrazio-tramitazioak espedientea jendaurrean jartzera eta interesdunei entzutera behartu zuen, aipatutako 7/1990 Legeko 17. eta 11.3. artikuluetan eta artikulu horiekin erlazionatutako beste xedapenetan ezarritakoarekin bat etorriz.

## DEPARTAMENTO DE CULTURA

## 2286

ORDEN de 9 de marzo de 2007, de la Consejera de Cultura, por la que se inscribe la Zona Arqueológica del Templo de San Juan Bautista de Villabezana en Ribera Alta (Álava) como Bien Cultural, con la categoría de Monumento, en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco.

La Comunidad Autónoma del País Vasco, al amparo del artículo 148.1.16 de la Constitución y a tenor del artículo 10.19 del Estatuto de Autonomía, asumió la competencia exclusiva en materia de Patrimonio Cultural, en cuyo ejercicio se aprueba la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco.

El Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, a la vista del interés cultural de la Zona Arqueológica del templo de San Juan Bautista de Villabezana en Ribera Alta (Álava), fundamentado en su valor cultural, y a tenor de lo dispuesto por la normativa legal aplicable, resolvió incoar mediante Resolución de 9 de enero de 2007, publicada en BOPV n.º 26, de 6 de febrero, el expediente para su inclusión en el Inventario General de Patrimonio Cultural Vasco.

La tramitación administrativa del referido expediente implicó, de conformidad a lo previsto en los artículos 17 y 11.3 de la mencionada Ley 7/1990 y en las demás disposiciones concordantes, el sometimiento de dicho expediente al trámite de información pública, durante el cual, también, se concedió audiencia a los interesados.

Legeak agintzen duen izapideak bete ondoren, ez da alegaziorik aurkeztu.

Hori guztia dela eta, aipaturiko legearen 17. artikuluan oinarrituz, Euskal Kultura Ondarearen Zerbitzu Teknikoek egindako txostena aztertu ondoren, eta Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordearen proposamena aintzat hartuz, honako hau

EBATZI DUT:

*Lehenengoa.–* Villabezanako, Ribera Alta, (Araba) Done Joane Bataiatzailearen tenpluko Arkeologi Gunea, Kultura Ondasun gisa, Monumentu izendapenaz, Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean sartzea.

*Bigarrena.–* Euskal Kultura Ondarearen Legeak aurreikusten dituen ondorioetarako Sailkatutako Ondasunaren deskribapen formala egitea, agindu honen II. eranskinean agertzen den bezala eta I. eranskinean azaltzen den mugaketarekin bat etorriz.

*Hirugarrena.–* Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 26. artikuluan aurreikusten diren ondorioetarako Jabego Erregistroari agindu honen berri ematea.

*Laugarrena.–* Ribera Altako Udalari bere hirigintza-araudia ondasun arkeologiko horrentzat egokitu dezala eskatzea Euskal Kultura Ondarearen Legeak xedatutakoa betez.

*Bosgarrena.–* Ribera Altako Udalari eta Araba Foru Aldundiko Kultura Sailari esparru arkeologiko horretan egiteko diren jarduera eta lan guztietarako, Foru Aldundiaren baimena beharko dela eta baimen hori lortzeko aurretiaz dagokion proiektu arkeologikoa aurkeztu beharko dela jakinaraztea, 7/1990 Legeko 45.5 atalak dioen bezala.

*Seigarrena.–* Espedienteko interesdunei, Ribera Altako Udalari, Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Hirigintza eta Ingurumen Sailei eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari agindu hau jakinaraztea.

*Zazpigarrena.–* Ondasuna Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean sartzen duen agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Arabako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.–* Inskribatzeko den agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik izango du ondorioak.

*Bigarrena.–* Administrazio-bidea amaitzen duen agindu honen aurka, interesdunek aukerako berraztertzeko errekurtsoa jar diezaiokete Kultura sailburuari hi-

Habiéndose dado correcto cumplimiento a los trámites legales establecidos al efecto, no se han presentado alegaciones.

Es por todo lo que antecede y, a tenor de lo establecido por el artículo 17 de la mencionada Ley, visto el informe de los Servicios Técnicos del Centro de Patrimonio Cultural Vasco y a propuesta del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes,

RESUELVO:

*Primero.–* Inscribir la Zona Arqueológica del templo de San Juan Bautista de Villabezana en Ribera Alta (Álava), como Bien Cultural, con la categoría de Monumento, en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco.

*Segundo.–* Proceder a la descripción formal del mencionado Bien conforme a la delimitación que se indica en el anexo I y en los términos expresados en el anexo II de la presente Orden.

*Tercero.–* Comunicar la resolución al Registro de la Propiedad, a los efectos previstos en el artículo 26 de la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco.

*Cuarto.–* Instar al Ayuntamiento de Ribera Alta para que proceda a la protección de dicha zona arqueológica contemplándola en su instrumento de planeamiento urbanístico municipal.

*Quinto.–* Hacer saber al Ayuntamiento de Ribera Alta, así como al Departamento de Cultura de la Diputación Foral de Álava, que toda actuación que se haya de ejecutar en la presente Zona Arqueológica debe contar con la autorización de la Diputación Foral, previa realización del correspondiente proyecto arqueológico, a tenor de lo dispuesto en el artículo 45.5 de la Ley 7/1990.

*Sexto.–* Notificar la presente Orden a los interesados, así como al Ayuntamiento de Ribera Alta, a los Departamentos de Cultura y Urbanismo y Medio Ambiente de la Diputación Foral de Álava y al Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio del Gobierno Vasco.

*Séptimo.–* Publicar la presente Orden de inclusión en el Boletín Oficial del País Vasco y en el Boletín Oficial de Álava.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.–* La presente Orden de inscripción surtirá efectos a partir del día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

*Segunda.–* Contra la presente Orden que agota la vía administrativa, los interesados podrán interponer, en su caso, previamente recurso potestativo de reposición an-

labeteko epean, edo bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzietarako salari bi hilabeteko epean, agindu hau argitaratzen edo jakinarazten den egunaren biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2007ko martxoaren 9a.

Kultura sailburua,
MIREN AZKARATE VILLAR.

## I. ERANSKINA

## MUGAKETA

Arkeologia Gunea Villabezanako Done Joane Bataiatzailearen egungo tenplua zentro duen eremu batek mugatzen du. Mugak iparraldera, ekialdera eta mendebaldera, 15 m dira tenpluaren egituren hondarretatik (dorrea, sakristia eta iparraldeko eranskinak), eta SWko ertzaren ondoan duen eraikinaren barrualdeko eremua ere hemen sartzen da. Hegoaldera mugaren lerroa aipatutako errepidetik hasiko litzateke, errepidea hartu gabe, SEko angelura iritsi arte, eta hortik aurrera errepideko beste aldera igaro eta errepidea bera ere hartuko luke. Errepidea zati batean ez sartzeak badu arrazoia: errepideak hegoaldeko aldean ebaki egiten du lurra, baina ekialdean gora egitean hori arindu egiten da.

Mugaketaren arrazoiak.

Hemen adierazitako mugaketa ahalik eta txikiena da, kontuan hartuta lekuaren garrantzi historikoa eta Goi Erdi Aroko nekropolien ezaugarriak (tipologia horretakoa da hau) Hegoaldean izandako eraldaketek —errepideko obrak— aldatuko zuten seguruenik aztarnategia alde horretan, eta egokia da mugaketatik zona hori ateratzea, nahiz eta garai batean aztarnategia egon bertan. Arearen gainerako zatian, eta gaur egun ditugun datuekin, ezin da Goi Erdi Aroko tenpluaren inguruan legokeen nekropoliaren mugaketa zorrotzagoa egin.

te la Consejera de Cultura en el plazo de un mes, o bien, directamente, recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco dentro del plazo de dos meses, contados a partir del día siguiente al de su última publicación.

En Vitoria-Gasteiz, a 9 de marzo de 2007.

La Consejera de Cultura,
MIREN AZKARATE VILLAR.

## ANEXO I

## DELIMITACIÓN

La Zona arqueológica se encuentra delimitada por un área con centro en el actual templo de San Juan Bautista de Villabezana y límites máximos, al Norte, Este y Oeste 15 m desde los restos de las estructuras del templo (torre y sacristía y adosados del Norte), se incluye aquí el área que le corresponda del interior del edificio cercano en el esquinal SO. Al Sur la línea partiría de la carretera mencionada excluida ésta hasta la zona correspondiente con el ángulo SE donde el área pasaría al otro lado de la carretera para incluirse ésta dentro de la delimitación. Esta exclusión es debida al corte que la carretera realiza en el terreno en el lado Sur, mitigado por el ascenso de la misma en la zona Este.

Justificación de la delimitación.

La delimitación aquí señalada es la mínima posible en base a la importancia histórica del lugar y a las características de las necrópolis altomedievales, tipología en que ésta se enmarca. Solo la remoción sufrida con seguridad en el área Sur, obras de la carretera, alterarían el yacimiento por este lado, siendo pertinente extraer de la delimitación una zona donde sin duda en otro tiempo hubo yacimiento. En el resto del área y con los datos que actualmente poseemos no es posible restringir más la delimitación de la necrópolis que se situaría alrededor del templo altomedieval.


Suvilla
600
VILLAB
606.9
609.0
608.2
610.7
60
Los Pechos
a 575
619.1
Cementerio
615.1
A-4341
Acceso
La Serna
ESKALA / ESCALA
30 0 30 60 Meters
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Kultura Ondarearen Zuzendaritza
Kultura Ondarearen Zentroa
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección de Patrimonio Cultural
Centro de Patrimonio Cultural
Planoa / Plano:
Zona Arqueológica del Templo de San Juan Bautista de Villabezana
Lurraldea / Territorio: ALAVA
Udalerria / Municipio: RIBERA ALTA
Data / Fecha: 11/12/2006
Eskala / Escala: 1:2000

II. ERANSKINA

DESKRIPZIOA

Tenplua leku garai batean dago, mugatzen duen errepidearen bihurgune itxi batean. Gurutze latindarreko tenplua da, E-W orientaziokoa.

Gaur egun ez du teilaturik eta tenplua estaltzen zuten gangetatik bat bakarra geratzen da, oinean, eta erortzeko arriskuan dago: koroari eusten zion ganga. Harlangaitzezko fabrika du. Gangak gurutze-gangak ziren; eraitsi egin ziren. Koroari, tenpluaren oinean, arku beheratu batek eusten zion, eta tenpluaren soiltasunarekin bat egiten zuen egurrezko balaustrada zuen.

Dorrera —beste espazio bat egiteko kanpai-horma betea da, dorrea baino gehiago— korotik joaten da, bertatik abiatzen den eskailera baten bidez. Sarrera hegoaldera du, eta iparraldera ditu eraikinaren eranskin guztiak: sakristia, buruari itsatsita; beste espazio bat, bataiategia agian, nabean; eta beste bat, korora heltzeko. Kanpoan beste esparru bat du erantsita, beharbada hilerri txiki bat izandako eraikina.

Aldareko zoruak zenbait lauza falta ditu eta mugituta dago. Nabean, lurrean, hilobi-kutxak daude, hogeita hamar inguru, Villabezanako familienak, ziurziur.

Kanpoan, oso nabari ikusten dira eranskinak eta erabilitako paramentu-motak, eta badaiteke elizatik geratzen diren atalen azterketa zehatza egiten bada, elizaren eraikuntza-faseak ezarri ahal izatea.

Kanpoko aldean ez dago substratu arkeologiko emankorrik dagoela adierazten duen aztarna nabarmenik, baina elizaren hegoaldeko eta ekialdeko eremuek ez dute, antza, eraldaketa handirik izan, eta, beraz, oso litekeena da aztarnak ondo kontserbatuta egotea. Iparraldera eta mendebaldera larreak eta lur landugabeak daude, eta beharbada haiei esker iraun du aztarnategiak.

ANEXO II

DESCRIPCIÓN

El templo se encuentra en una zona sobreelevada en una curva cerrada de la carretera que la delimita. Se trata de un templo de una nave con planta de cruz latina y orientación E-O.

En la actualidad se han eliminado el tejado y las bóvedas que cubrían el templo solo queda, en riesgo de caer, a los pies, la bóveda que sujetaba el coro. La fábrica es de mampostería. Las bóvedas, antes de su derribo, eran de crucería. El coro a los pies, sostenido por arco rebajado, presentaba una balaustrada de madera en consonancia con la humildad general del templo.

A la torre, más bien una espadaña rellenada para configurar otro espacio se accede a través del coro por una escalera que sale de él. El acceso se realiza por el Sur teniendo al Norte todos los añadidos al edificio, una sacristía, pegando a la cabecera, otro espacio que bien pudo hacer de baptisterio, en la nave y otro que da acceso al coro. Al exterior se adosa otro antiguo recinto que pudo ser un pequeño cementerio.

El suelo del altar esta desenlosado y algo removido mientras que la nave está cubierta de encajonamientos con tumbas familiares en número cercano a la treintena, sin duda correspondientes a las familias de Villabezana.

Al exterior se notan con claridad los adosados y los distintos tipos de paramentos siendo más que posible que un estudio pormenorizado establezca distintas fases constructivas en la iglesia, o en lo que de ella queda.

En esta zona exterior no hay restos que denoten a simple vista la existencia de sustrato arqueológico fértil aunque el área S y E de la iglesia no parecen haber sufrido excesivas remociones por lo que la conservación de los restos que pudiera haber es más que factible. Al Norte y Oeste la existencia de zonas baldías o pastos puede haber facilitado la conservación del yacimiento.

**2287**

AGINDUA, 2007ko martxoaren 15ekoa, Kultura sailburuarena, gizarte-bizitzan euskara sustatzeko, garatzeko edota normalizatzeko diru-laguntzak emateko modua arautzen duen aginduan finkatutako Balorazio-batzordearen osaketa neurri batean aldatzen duena.

Kultura sailburuaren 2007ko urtarrilaren 24ko Aginduak, gizarte-bizitzan euskara sustatzeko, garatze-

**2287**

ORDEN de 15 de marzo de 2007, de la Consejera de Cultura, por la que se modifica, en parte, la composición de la Comisión de Valoración establecida en la Orden que regula la concesión de subvenciones para la promoción, difusión y/o normalización del euskera en la sociedad.

La Orden, de 24 de enero de 2007, de la Consejera de Cultura, por la que se regula la concesión de sub-